

## TOLOSALDEKO EMAKUMEEN ETXEA GARATZEKO PROZESUA

### TALDE ERAGILEAREN 5. BILERAREN AKTA

**Eguna:** 2022-01-26

**Ordua:** 18:00-20:30

**Lekua:** Tolosako Amaro azuzoko auzo-etxe lokala

**Partaideak:**

#### PARTE-HARTZAILEAK

Tolosaldeko emakume-elkarteetako, eragile feministetako nahiz norbanako gisa parte hartzen duten emakumeak. Guztira 8 emakume.


Tolosako Udaleko berdintasun-teknikaria

Elhuyarreko teknikariak (bi teknikari)

#### Gai zerrenda:

#### 1.- SARRERA

Hasteko eta behin, bilkuraren hasieran zein bukaeran gometsen bidez adierazi dugu **gehien identifikatzen garen egoera**: *energia gabe, behartuta, jakin-minez, gogotsu, pozik*.



Nekatuta etorri diren batzuk gogotsu atera dira bileratik. Gogoz etorri diren pare batentzat ordea, neketsua izan da saioa. Balorazio orrian aipatu dute neke horren zergatia.

Gometsak jarri ondoren, gaurko **bileran landuko ditugun gaiak** aurkeztu ditugu.

#### 2.- AZKEN LANTALDE POLITIKO TEKNIKOAREN BERRI EMAN

2022 urteko hitzordu nagusiei eta geratzen diren bilerei begira, honako **kronograma aurkeztu eta onartu** zen azken Lantalde Politiko Teknikoan:

HITZORDU NAGUSIAK	2022ko hilabeteak											
	01	02	03	04	05	06	07	08	09	10	11	12
<b>Lantalde Politiko Teknikoaren bilerak:</b> Urtarrilak 17, Apirilak 4												
<b>Talde Eragilearen bilerak:</b> Urtarrilak 26, Martxoak 16												
<b>Gune Zabala:</b> Martxoak 30												
<b>Emakumeen Etxeko 1. eraikina ireki</b>												
<b>Emakumeen Etxeko 2. eraikina ireki</b>												

Gogoratu dugu nola Emakumeen Etxeko gastu komunei (mantenua, zerbitzuak eta jarduerak) zein dinamizatzaileren gastuei aurre egiteko **finantzaketa partekaturako proposamena** aurkeztu zuen Tolosako Udalak, herri bakoitzak egin beharko lukeen ekarpen ekonomikoa zehaztuz. Proposamen hau eskualdeko 27 udalei aurkezteko konpromisoa hartu zuten Berastegi eta Asteasuko alkateek. Horretarako, deialdia egin eta 18 udaletako ordezkariak bertaratu ziren, eta guztiei, bertaratu zirenei nahiz ez zirenei, bidali zitzaien korreo bidez Etxearen inguruko informazio guztia. Bi beldur agertu dira herrien artean:

- Emakumeen Etxeak estali egingo du herrietan dagoeneko badauden berdintasun plangintzak.
- Emakumeen Etxea, dinamizatzailera eta jarduera nagusiak Tolosan zentralizatzea.

Finantzaketa partekatuari emandako erantzuna berriz, hau izan da:

- Ez dira proiektura batuko: **Abaltzisketa, Hernialde eta Belauntza**
- **Orendainek** eta **Albizturrek** gaia plenora eramango dute egun hauetan
- **Gainerako guztiak proiektura batuko dira**

Erantzun guztiak izatean berriro kalkulatu da herri bakoitzak egin behar duen ekarpen ekonomikoa, eta **proiektura batzen diren herrien arteko hitzarmena** egingo da xehetasun guztiak bertan bilduz.

**Dinamizatzaileren kontratazioari** dagokionez, forma juridikoa emateko bideak udalen arteko hitzarmena edo udalen arteko elkarteak direla aipatu da orain arte baina herrien eskaera izan da Tolosaldea Garatzenen bidez egitea dinamizatzaileren kontratazioa. Ingurumen-teknikariarekin esaterako, horrela egiten da, bere ordainketaz arduratzen dira zerbitzua erabiltzen duten udalak. Proposamena egingarria den aztertuko dute orain Tolosaldea Garatzenen.

**Obrekin lotuta**, fatxada aldaketa egin da eta ez du behar bizilagunen oniritzirik, onartuta dago. Pleguak eginda daude, eta jarraian etorriko da fiskalizazioa. Behin argitaratutakoan 30 egun egongo dira proiektuak aurkezteko. Adjudikatu eta obrak hasi bitarte hilabeteko epea egongo da, eta behin obrak hasita zortzi hilabetetan burutu beharko dira; bi eraikinak batera egingo dira. Hirigintza Sailak jarraipena egingo du eta bermatuko du aurrena lehenengo eraikina egitea eta gero bigarrenarekin jarraitzea. Gehiengoak oso zaila ikusi du irailean lehen eraikina irekitzea, edozein kasutan, prozesua aurrera joatea positibotzat jo da.

Obrak egin bitartean, **altzarien kontratua** martxan jarriko da. Hirigintzako arkitektoak Talde Eragilearekin kontrastatu nahi du altzarien aukeraketa, gutxienez areto nagusikoak eta sarrerakoak. Horretarako, lantalde bat sortzeko proposamena egin du, bai altzarien aukeraketarako zein eraikinaren jarraipena egiteko. Bi lagun parte hartzeko prest agertu dira. Beste norbait animatuko balitz, aukera izango luke. Aipatu da, lantalde honetakoek komeni dela altzarien funtzionalitateaz eta kontu teknikoaz ezagutza izatea.

**Eskualdeko emakumeak informatuz.** Lantalde Politiko Teknikoan parte hartzen duten Mugimendu Feministako ordezkariak hartutako konpromisoari jarraituz, 200 emakume ingururi bidali zaie emaila proiektuaren inguruan informatuz eta euren udaletara jotzeko gonbidapena eginez. Tolosaldeko emakume dezente dauden (80 bat) whassap taldera ere bidali zen mezua. Bakan batzuk esan zuten joko zutela baina ez dakite zein herrietakoak diren. Beste email bat bidaliko zaie Gune Zabalera gonbidatuz.

### 3.- ETXEAREN IZENA

Aurreko bileran beharrezkoa ikusi zen Etxearen izena erabakitzen joatea eta ondorioz, **doodle bidezko bozketa** egin da. Honakoa izan da emaitza:

	Andragora	Tolosaldeko Emakumeen Etxea	Andragora!	Andrezketak	Lur-haziak!
16 participantes	✓ 9	✓ 8	✓ 0	✓ 1	✓ 1
	★	★			

Proposatu eta onartu da bozkatuenak izan diren **bi izen aukerak Gune Zabalera eramatea** eta bertan erabakitzea behin betiko izena. Horrela, emakume gehiagok parte hartu ahal izango dute aukeraketan. Hiru aukera hauek eskainiko dira:

1. **Andragora**
2. **Tolosaldeko Emakumeen Etxea**
3. **Andragora Tolosaldeko Emakumeen etxea**

**Bozka sistema:** pertsona bat = boto bat irizpidea jarraituko da, bakoitzak bere izenean emango du botoa (ez elkarte baten izenean), eta presentzialki egingo da bozketa, ez online (martxoaren 30ean).

#### 4.- ETXEAREN ELKARTEA

**Elkarteko karguekin lotuta**, gogoratu dugu nola diruzaintzarako hasieran bere burua eskaini zuen pertsonak bertan behera utzi duen eskaintza. Momentuz gaia bere horretan utzi dugu eta elkartearen dinamikari heldu diogu.

Gogoratu dugu elkartearen estatutuak onartuta daudela, baina ez erregistratuta. Era berean, erreparasatu dugu elkartea sortzea erabaki zela nortasun juridiko propioa izanda dirulaguntzak eskatu ahal izateko. Azken bileran ordea, zalantzak sortu ziren kudeaketa organoetan elkarreak izan behar duen ordezkariarekin lotuta: presidente, idazkari eta diruzain karguetako hiru pertsona horiek izango dira kudeaketa organoetan elkarrea ordezkatzeko dutenak, edo beste norbait hautatu daiteke? Nortzuk osatuko dute elkarrea? Bazkideak egongo dira? Ondorioz, eta elkartearen funtzioa eta ezaugarriak guztiok argi izan ditzagun, **elkarrea zertarako behar dugun** zehazteko ariketa egitea proposatu dugu. Ariketa hau lehenago egin behar zela aipatu du parte hartzaile batek.

**Dinamika:** Bonboi koloreen arabera talde txikiak eginda, elkartearen funtzioak postit-etan jarri ditugu. Hau izan da emaitza:

##### TALDE URDINA

→ *Dirua kudeatzeko*

##### TALDE ARROSA

→ *Dirua eskatzeko*

→ *Ofizialtasuna-errepresentazio bat (ordezkaritza)*

##### TALDE BERDEA

→ *Elkarrea eratzea legeak eskatzen duen moduan, pertsonalitate juridikoa izan dezan horrek ahalbideratuko baitio diru-laguntzak eskatu, lortu eta kudeatzea.*

→ *Emakumeen Etxeko gobernu organoetan parte aktiboa hartzea.*

→ *Emakumeen Etxeko gobernu organoetan parte hartzeko, bazkide figura nahitaezkoa da. Bazkideen artean erabakiko baita nork ordezkatzeko duen.*

→ *Emakumeen Etxetako bilerak edo koordinadora balego, elkarrea hau izango litzateke Etxearen ordezkari gune horietan.*



#### Sortu diren ZALANTZAK eta IDEIAK:

- **Dirulaguntzak eskatu eta kudeatzeko, hau da, dirua kudeatzeko** zalantza sortu da, batetik, nork erabakiko duen dirua zertarako erabiliko den, eta bestetik, diruaren kudeaketa lanaz nor arduratuko den. Aipatu da, gune berri bat sortu beharrik gabe, dagoeneko kudeaketa organoetan zehaztuta dagoen Gune Zabala edo Asanblada izan daitekeela erabaki horiek hartzeko gunea. Era berean, diruaren kudeaketa lanaz arduratuko den lantalde bat sortu daiteke Etxean, elkarteko presidente, idazkari eta diruzain postuan dauden pertsonen sinatu beharreko dokumentu eta bestelako tramitazioekin laguntzeko. Aipatu da Donostiako Emakumeen Etxeko elkartean emakume bat dutela kontratatuta lan horiek egiteko, kasu honetan ez da beharrezkoa ikusten.
- **Dirulaguntzekin** lotuta, Tolosako berdintasun-teknikariak informatu du aurreikusita dagoela proiektura batzen diren Tolosaldeko udalek 30.000 euroko dirulaguntza zuzena, izenduna, eta lehia gabekoa izatea Etxeari bizia emateko sortutako elkarrea bakarra baita. 2022rako zehazki

8.000 eurokoa dago aurreikusita. Edozein kasutan, dirulaguntza hori erabili daiteke ala ez, aukerazkoa da.

- **Bigarren lokalaren erabileraren inguruan**, Tolosako berdintasun-teknikariak gaineratu du, bere garaian Lantalde Politiko Teknikoan aipatu zela aukera bat izan zitekeela Etxeko elkarteak pertsona bat kontratatzea atzeko eraikina kudeatzeko (atea ireki eta itxi, besteak beste), bertan ez delako udal langilerik egongo. Baina, edozein kasutan, hori elkarteak erabaki beharko du, eta atzeko eraikinarekin lotutako funtzionamenduaren atala hurrengo Talde Eragilean landuko dugu.
- **Etxeko kudeaketa organoetan ordezkaritza izateko**. Onartuta dagoen Etxearen kudeaketa-ereduko organoetan (Talde Eragilea, Koordinazio Gunea eta Gune Zabala/Asanblada) aurreikusten da elkartearen izenean ordezkari batek parte hartuko duela. Ordezkari hori Etxeko Gune Zabala edo Asanbladan aukeratu daitezkeela aipatu da, hau da, Etxeko Asanbladari Elkartearen Asanblada izaera emanaz.
- Aurreko puntuekin lotuta, **ikusi da bazkideak beharrezkoak izango dituela Elkarteak**, ordezkaritza eta dirulaguntzen nondik-norakoak erabakitzeko. Ez da baldintza berezirik eskatuko bazkide izateko, ez eta kuotarik ordaindu beharko ere (\*ikus bazkideez estatutuen jasotzen dena aktarekin batera atxikitako dokumentuan). Bazkide zerrenda barne mailan geratuko litzateke. Batzuek ordea uste dute, bazkideak izateak bere konplikazioa eta seriotasuna dakarrela: asistentzia kontrolatu, joan ezinak, akta jaso...
- **Beste zenbait ideia**: Emakumeen Etxearen inguruan Tolosaldeko emakumeek udalekin interlokuzioa izateko tresna izan daiteke ere elkarte. Baita, Emakumeen Etxearen inguruan mugitzen diren emakumeen artean sortzen diren ideiak kudeatzeko ere.

Elkartearen izaerak bilakaera bat izan duela partekatu dugu. Hasiera batean dirulaguntzak eskatzeko eta tramitazio hutserako planteatu bazen ere, elkarte kudeaketa organoetan ordezkaritza egoteak izaera aldatu dio. Hortik, bazkideen beharra ere izatea. Batzuen ustez dimentsio handia hartu du.

Atera den guztia bildu eta hurrengo bileran elkartearen ingurukoak ixten saiatuko gara.



## 5. DINAMIZATZAILEAREN FUNTZIOAK ETA PROFILA

Gogoratu dugu Etxeko dinamizatzailea Tolosaldeko 27 herriek, edo proiektura batzen direnek, kontratatuko dutela. Tolosako Udalak bere aldetik, dagoeneko baduen berdintasun-teknikari baten lanaldi erdia bideratuko du Emakumeen Etxera.

Dinamizatzaileak izan beharreko funtzio zerrenda proposatu dugu. Binaka jarrita erabaki dugu zerrenda horretatik zein diren funtzio beharrezkoak eta ea berririk gehituko genukeen.

Hona hemen dinamizatzaillearentzako **proposatutako funtzio zerrenda**:

- 1.- Etxera hurbiltzen diren **emakumeei harrera** egin eta **informazioa eman**. Eskabideen tramitazioa egin.
- 2.- 28 herrietako udalekin eta talde feministekin **harremanetan** egon.
- 3.- Eskualdeko talde feministen **mapeoa** egin.
- 4.- Tolosako Udaleko **berdintasun-teknikariarekin batera**, Etxeko lantalde, jarduera eta zerbitzuak koordinatu, dinamizatu, planifikatu (irakasleen kontratazioa, Tolosako Udalarena ez bada) eta ebaluazioa egin.
- 5.- **Kudeaketa-organoetan** parte hartu: Talde Eragilea, Koordinazio Gunea, eta Gune Zabala/Asanblada. \*Kudeaketa organoetako bilera-deialdiak egin, akta jaso eta bidali **(xehetasun hau gehitzea proposatzen dugu)**
- 6.- **Kudeaketa-organoetan hartutako erabakiak gauzatu** eta koordinatu.
- 7.- **Berdinbideanen** parte hartu
- 8.- **Indarkeria matxista** kasuen deribazioa egin, berdintasun-teknikariekin eta Gizarte Zerbitzuekin koordinatuta.
- 9.- **Espazioaren kudeaketa** egin: jardueretarako gelak prestatu, atea ireki eta itxi (ordutegia goiz eta arratsalde)
- 10.- **Programaziorako proposamenak** egin, programazioa diseinatu eta aurrera eraman.
- 11.- **Urteko memoria** egin eta aurkeztu dagokion organoan.

Guztiak begi onez ikusi dira eta honako hau gehitu da:

- 12.- Gipuzkoako Emakumeen Etxeen artean sortu berri den **sarean parte hartzea**

Proposatu da, halaber, elkarteren izenean Etxean egiten diren ekintzak justifikatzea baina aipatu da udalen langilea izanda, dinamizatzailleak ezin duela hori egin.

Argitu da **Berdinbidean** dela 10.000 biztanletik behera dituzten, eta berdintasun-teknikaririk ez duten, herriei eskaintzen zaien aholkularitza zerbitzua. Tolosaldeko herri askok parte hartzen du Berdinbideanen, bai ordezkari politikoez zein teknikoek, eta garrantzitsua izan daiteke jarduerak koordinatzeko. Berdintasun politikak aurrera eramateko baliabide gutxi dituzten herriei zuzenduta dago, eta ezinbesteko baldintza da ordezkari politiko zein teknikoek parte hartzea. Hiru hilabetez behin formakuntza jasotzen dute eta udal barruko berdintasun politikak planifikatzen dituzte bertan. Planifikazio baten baitako ekintzekin lotuta lortzen dira dirulaguntzak, ez ekintza solteak eginda.

**Dinamizaillearen profila** adosteko zutik jarri gara eta horman jarritako ezaugarriak aipatu ditugu lehenik binaka eta ondoren denon artean.

Dinamizatzailearen lau ezaugarri hauek dagoeneko ezarrita daude:

**Berdintasun-teknikaria**

*\*Erdi-mailako teknikari funtzionario plaza bat betetzea, A sailkapen taldekoa (A2 azpitaldea), Administrazio Bereziaren eskalako. Teknikariaren Azpieskalako. Erdi mailako teknikariaren klasekoa. Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko prestakuntza-ikastaroa, gutxienez 150 ordukoa eta organo ofizial batek ziurtatua (unibertsitatea edo administrazio publikoa), eta/edo emakumeen eta gizonen berdintasunerako teknikari gisa edo lanpostuari dagozkion eginkizunak betetzen gutxienez bi urteko lan-esperientzia, lan-bizitzako ziurtagirian ez ezik, enpresa kontratatzaileak eman duen eta eginkizunak eta dedikazioa agertzen dituen ziurtagirian ere jasoa.*

**Lanaldi osoa**

**Deialdi ireki bidez**  
aukeratuko da

**Euskaraz lan egiteko**  
gaitasuna (C1 gutxienez)

Dinamizatzailearentzako beste ezaugarri hauek ere proposatu dira eztabaidarako:

**Teoria feminista eta mugimendu feministaren ezagutza** izatea, baita emakume taldeen dinamizazio-lanetan esperientzia izatea ere

**Eskualdeko ezagutza** izatea

**Koordinatzeko gaitasuna** izatea

**Entzuteko eta enpatizatze**ko gaitasuna izatea

Ezaugarri guztiak beharrezkoak ikusi dira, eta beste bi berri proposatu dira, modu ezberdinetan uler daitezkeenak:

*Emakumeen aniztasun funtzionala kontuan hartzea deialdian*

*Emakumeen aniztasunari buruzko ezagutza izatea*

## 6.- AURREKO SAIOAN LANDUTAKO ERREGELAMENDUAREN ATALAK ITXI

Erregelamenduaren atalei dagokienez, Etxearen **helburu eta printzipio gidariak** zein Etxearen **zerbitzu eta jarduerak** zehazteko ariketa egin genuen aurreko saioan. Helburuetan lehenengo fasean landutakoari bat gehitzea erabaki zen: *indarkeria matxista ikuspegi integraletik lantzeko*.

Horrela geratuko dira **Etxearen helburuak**:

### 05 ZERTARAKO Emakumeen Etxe bat Tolosaldean? (Helburuak)

#### GUTASUN BATEN PARTE SENTITZEKO

- **Gertutasuna eta konfiantza** eskaintzeko, entzuna eta ulertua izateko.
- **Parte** sentitzeko eta parte izateko.
- **Seguru eta babestuta** sentitzeko.
- **Libre** izateko.
- **Aisialdiko jarduerak** lantzeko, giroari arreta berezia jarrita.

#### AHALDUNTZEKO

- **Informazioa jasotzeko eta ikasteko**. Garapenerako gunea izateko.
- Emakumeak etengabe ahalduntzeko: **Jabetze Eskola**.
- **Feministak sortzeko laborategia** izateko, feminismoaren inguruko sentsibilizazioa lantzeko.

#### SAREAK ERAIKITZEKO

- **Emakume anitzak** (adina, jatorria, klasea, ideologia, gaitasun...) elkartzeko, saretzeko eta sinergiak lantzeko.
- Eskualdeko **mugimendu feminista sendotzeko**.
- Eskualdeko emakume guztien **indarrak batzeko**.
- Emakume-taldeen **egoitza** izateko.

#### INDARKERIA MATXISTA IKUSPEGI INTEGRALETIK LANTZEKO


Baliabide publiko komunitarioak eta tresna kolektiboak eskaintzea

#### ERALDAKETA SOZIALERAKO

Eraldaketa ikuspegitik jendarteko eremu guztietan **politikoki eragiteko** (behatoki kritikoa): elkarte gastronomikoak, ikastetxeak, jaiak, enplegua, zaintza-lanak, etab.

Printzipio gidarietan berriz, bi gehitu ziren: irisgarria, sarbide errazekoa (emakume guztiei irekia izango dena), eta jabetza publikoa; publiko komunitarioa. Lehenaren esanahia hobeto ulertzeko *harrera eta sarbide errazekoa* jartzea proposatu eta onartu da. Horrela geratuko dira **printzipio gidariak**:

### 05 PRINTZIPIO GIDARIAK (Nolakoa)






Jarduera eta zerbitzuak lehen fasean zerrendatu genituen eta oraingoan lehentasunak markatu ditugu. Zein dira lehentasunezko **zerbitzu eta jarduerak**? Horrela geratu zen:

## 05 ETXEAREN JARDUERAK ETA ZERBITZUAK

Lehentasuna izango dute jarduera eta zerbitzu hauek:



- ➔ **Ahalduntzeko gune eta dinamikaren barruan:**
  - Jatorri desberdinetako emakumeen ahalduntze taldea
  - Desgaitasuna duten emakumeen ahalduntze taldea
  - Indarkeriari aurre egiten dioten emakumeen taldea
- ➔ **Behatoki kritikoa. Azterketak egitea:**
  - Dokumentazio gunea

Intersekzionalitatea edo emakume desberdinen beharrak presente eduki  
Jarduera eta zerbitzu guztiak dira garrantzitsuak

Atal horiek itxita, hitza hartu du lagun batek eta aurreko saioaren aktari egin dio erreferentzia, **indarkeriaren inguruko zati hau** aipatuz:

*“Indarkeriaren inguruko azalpena ere eman dugu, izan ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak indarkeria matxista terminoa erabiltzen du honek barnebiltzen dituelako, emakumeei berriaz ezartzen zaien indarkeriaz gain, sexu-genero sistemaren arauetan sartzen ez diren pertsonen aurka gauzatzen diren gainerako indarkeria motak, homofobia, lesbofobia eta transfobia barne. Politika zehatzak gauzatzerakoan ordea, emakumeei berriaz ezartzen zaien indarkerian jartzen da fokua.”*

Gipuzkoako Aldundiak indarkeria matxistaz ematen duen definizioarekin bera ez dago ados, eta definizio hori ezagutu gabe ezin dela ontzat eman iritzi dio. Era berean, aurreko bilerako aktan agertzen den lehen zatiak akatsa duela uste du subjektu desberdinez hitz egiten delako eta ez delako emakumeen aurkako zapalkuntza-sistema agertzen, bai ordea, bigarren zatian sexu-genero sistema. Elhuyarretik argitu nahi da *emakumeei berriaz ezartzen zaien indarkeria* esatean, *berriaz* hitzak bereziki esanahi duela, alegia, emakumeek emakume izateagatik pairatzen duten indarkeriari egiten diola erreferentzia, eta honekin ulertzen delakoan gizonak emakumeekiko duten zapalkuntza-sistema dagoela bere baitan.

Pertsona honen proposamena honakoa da:

*“Emakumeen aurkako indarkeria gizonak emakumeekiko duten menderatze-sistemaren adierazpen bat da. Emakumeen aurka zuzentzen da emakume izateagatik. Sexu-genero sistemaren arauetan sartzen ez diren pertsonen aurka gauzatzen diren gainerako indarkeria motak homofobia, lesbofobia eta transfobia dira.”*

Geratu gara Aldundiaren **terminologiaren inguruko dokumentazioa** bidaliko dugula eta bere azalpen proposamena eramango dela hurrengo bilerara.

## 6. BESTERIK

Gogoan izateko hurrengo bi datak nabarmendu ditugu:

- **Martxoaren 16an izango da hurrengo Talde Eragilea** Amarozko auzo-etxe lokalean
- **Martxoaren 30ean Gune Zabala.** Azken hau saiatuko gara kultur-etxeke areto nagusian egiten.

Garrantzitsua izango da Gune Zabalerako eskualdeko ahalik eta emakume gehien gerturatzea. Beraz, zabaldu deialdia zuen taldeetan, lagunen artean eta inguruan.

## 7. BILERAREN BALORAZIOA

Bukatzeko, **bilera baloratzeko** balorazio-orriak banatu ditugu. Hauek dira jasotako balorazioak 1-5 eskalan, 1= oso txarra eta 5= oso ona dela aintzat hartuta:

BALORAZIO-ALDAGAIA	BATEZ BESTEKO PUNTUAZIOA (1-5)
Emankorra	4,1
Gardena	4,2
Konfiantzan oinarritutakoa	4,1
Hezteko eta garatzeko balio duena	4,1
Harreman horizontaletan/ahizpatasunean oinarritutakoa	3,5
Parte-hartzailea	4,1

- **Zerk sentiarazi zaitu ongi?**
  - *Galduta nagoela.*
  - *Orokorrean gustora. Intentsoa, beti bezela.*
- **Zerk sentiarazi zaitu deseroso?**
  - *Ezerk*
  - *Itxitako kontuekin berriro bueltaka, estankatuta.*

### Hartutako konpromisoak:

KONPROMISOA	ARDURADUNA
Gipuzkoako Aldundiaren indarkeria terminologiaren inguruko dokumentazioa bidali	Elhuyar
Altzarien aukeraketarako zein eraikinaren jarraipena egiteko lantaldean izena eman (Bi lagunek eman dute izena, bat gehiago behar da)	Talde Eragileko partaideak
Gune Zabalerako deialdia zabaldu taldeetan, lagunei eta ingurukoei	Talde Eragileko partaideak

## Eskerrik asko!

